

OCW

AUTOEBALUAZIOAREN GALDERAK

**ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA
HEZKUNTZAN**

1GAIA

1. 90. hamarkadatik aurrera orientazioa zenbait estrukturetan banatzen dela esan daiteke. Zein dira?

- a) Hezkuntza sistemaren barruan ematen dena eta Unibertsitatearen sistemaren barruan ematen dena
- b) Hezkuntza sistemaren barruan ematen dena, Unibertsitatearen sistemaren barruan ematen dena eta arlo sozio-laboralean ematen dena
- c) Hezkuntza sistemaren barruan ematen dena, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
- d) Beste erantzunak okerrak dira. Soilik Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan du estuktura bat eta bertan, gairik garrantzitsuena lanerako formakuntza da

2. Aukeratu benetako erantzuna.

- a) Ikastetxe batean orientazioaren erantzukizuna soilik orientatzailearena da
- b) Ikastetxe batean orientazioaren erantzukizuna soilik irakasle taldearena da
- c) Ikastetxe batean orientazioaren erantzukizuna, orientatzaileari ezezik, hezkuntza-zentroari, irakasle taldeari eta zuzendaritza-organoei egotzi behar zaie
- d) Ikastetxe batean orientazioaren erantzukizun osoa Berritzegunearena da

3. Aukeratu benetako erantzuna.

- a) Euskadin, ikastetxeetan, kanpo-laguntza talde bezala, Berritzeguneak daude eta Nafarroan, Orientasare
- b) Euskadin, ikastetxeetan, kanpo-laguntza talde bezala, Berritzeguneak daude eta Nafarroan, Centro de Recursos Específicos de Navarra (CREENA)
- c) Euskadin, ikastetxeetan, kanpo-laguntza talde bezala, Iparrorratza dago eta Nafarroan, Centro de Recursos Específicos de Navarra (CREENA)
- d) Euskadin, kanpo-laguntza talde bezala, Iparrorratza dago eta Nafarroan, Orientasare

4. Diagnosia Hezkuntzan ikasgaiaren lau baliabide garrantzitsu hauek dira:

- a) Apside, Orientasare, Euskadiko Eskola Kontseilua eta Revista Española de Orientación y Psicopedagogía
- b) Euskadiko Psikopedagogia Elkarte, OrientaTU, SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroa eta Revista Española de Orientación y Psicopedagogía
- c) Portal IECA, Orientasare, SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroa eta REOP+
- d) Educar y Vivir, Orientasare, SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroa eta REOP

2.GAIA

5. Egia ala gezurra al da? Diagnostiko Pedagogikoa harremanduta dago beste hainbat diziplinekin, hezkuntzako diziplinak izan edo beste arlo/diziplina batzuk izan.

- a) Egia
- b) Gezurra

6. Hezkuntzaren Diagnosian erabiltzen diren teknika-taxonomiei dagokionez,

- a) Elkarrizketetan laburbiltzen dira
- b) Hauexek dira: behaketa-, elkarrizketa-, behaketa-teknikak, teknika subjektiboak, proiektiboak eta objektiboak
- c) Teknika-multzo handiak dira eta soilik teknika proiektiboak eta elkarrizketa ikusi ditugu ikasgaietan
- d) Teknika-taxonomiak iraganeko kontua dira, hemendik aurrera soilik teknika objektiboak erabiliko dira Hezkuntza Diagnosian

7. Dislexia neurtzeko bi test ditugu esku artean. X testaren fidagarritasun koefizientea 0.20 da eta Y testarena 0.70. Zein aukeratuko dugu?

- a) X testa aukeratuko dugu zeren eta zenbat eta koefizientea 0ra gehiago hurbildu, fidagarritasuna handiagoa da
- b) X aukeratuko dugu, zeren eta zenbat eta 0ra koefizientea gehiago hurbildu, orduan eta zorirako aukera gehiago dago eta mota horretako testa komeni zaigu
- c) Y testa aukeratuko dugu, zeren eta zenbat eta koefizientea 1era gehiago hurbildu, fidagarritasuna handiagoa da
- d) Y testa aukeratuko dugu, zeren eta zenbat eta koefizientea 0.50era gehiago hurbildu, fidagarritasuna handiagoa da

8. Zein faktoreren arabera aukeratu behar dira testak?

- a) Helburuaren arabera eta adinaren arabera, egon daitezkeen beste faktore batzuk ez dira garrantzitsuak
- b) Helburuaren, adinaren, denboraren, taldekakoa/banakakoa izatearen, fidagarritasunaren eta balideziaren arabera
- c) Soilik taldekakoa edo banakakoa izatearen arabera, izan ere eskoletan ikasle asko dago eta ezin dira bakarkako probak pasatu
- d) Soilik helburuaren arabera, adinak ez du horrenbesteko garrantzia

3.GAIA

9. Egia ala gezurra al da? Ikasteko baliabide irekiak toki hauetan aurkitu daitezke: Amarauna, Berritzegune G-04 Ordizia, Edua, Agrega2.

- a) Egia
- b) Gezurra

10. Ikasteko zailtasunak *Learning Disabilities Association of America*ren (LDA) arabera:

a) Ez dute larritasunik, hainbat baldintzekin batera egon daitezke, beste zailtasun batzuk ere egon daitezke, identifikazio goiztiarrak behar dituzte eta ebaluazio espezializatuak/esku hartze puntualak komeni dira etxean, eskolan, komunitatean eta lantokian

b) Ez dute larritasunik, eurak bakarrik agertzen dira, identifikazio goiztiarrak behar dituzte eta ebaluazio espezializatuak/esku hartze puntualak komeni dira etxean, eskolan, komunitatean eta lantokian

c) Larriak eta bizitza osorako dira, ezohiko esfortzu eta laguntza maila altuekin mantentzen dira bakarrik, hainbat baldintzekin batera egon daitezke, beste zailtasun batzuk ere egon daitezke, identifikazio goiztiarrak behar dituzte eta ebaluazio espezializatuak/esku hartze puntualak komeni dira soilik eskolan

d) Larriak eta bizitza osorako dira, ezohiko esfortzu eta laguntza maila altuekin mantentzen dira bakarrik, hainbat baldintzekin batera egon daitezke, beste zailtasun batzuk ere egon daitezke, identifikazio goiztiarrak behar dituzte eta ebaluazio espezializatuak/esku hartze puntualak komeni dira etxean, eskolan, komunitatean eta lantokian

11. Berriazko hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasleak Euskadin...

- a) Soilik irakurketa-zailtasunak eta idazketa-zailtasunak dituzte
- b) Soilik Hezkuntza Premia Bereziako ikasleak dira
- c) Bitan sailkatzen dira: 1) Batetik, hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak eta 2) bestetik, hezkuntza-laguntza-behar espezifikokoak dituzten ikasleak (HLBP)
- d) Soilik hezkuntza-laguntza-behar espezifikokoak dituzten ikasleak dira

12. Egia ala gezurra al da? Euskadiko Eskola Kontseiluaren azken txostenean esaten denez, azken urteotan, hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen kopuruak eta HLBP dituzten ikasleen kopuruak beste urteetakoan antzekoak dira

- a) Egia
- b) Gezurra

13. Aukeratu erantzun egokia:

a) Egun Euskadin W67, Hezkuntza Laguntzako Premia Berezien Aplikazioan biltzen dira Berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen (BHLBP) txostenak, hau da, heziketa premia bereziak (HBP) dituztenak eta hezkuntza-laguntza-behar espezifikokoak dituzten ikasleenak (HLBP). Aplikazioak ikasleei buruzko informazioa biltzen du eta eskola inklusiboaren barruan antolatzeko baliagarria da

b) Euskadin erabiltzen den W67 aplikazioa, HPB izatetik HLBP izatera pasatu da

c) Euskadin erabiltzen den W67 aplikazioak bi erregistro ditu, bakoitzak bere prozedura duena

d) Aurreko erantzun guztiak egokiak dira

4.GAIA

14. Egia ala gezurra da? Balorazio psikopedagogikoaren eskaera, hezkuntza esku hartzearen Ez Ohiko prozedura bat da. Ez Ohikoa den heinean, aniztasunari behar adinako erantzuna emateko, ohiko ekimen guztiak eskasak izan direnean soilik eramango da aurrera.

- a) Egia
- b) Gezurra

15. Ebaluazio psikopedagogikoaren txosten ereduak Euskadiko ikastetxeetan atal hauek ditu:

- a) Ikaslearen datuak, ebaluazioa egitearen arrazoiak, norik eskatu duen ebaluazioa, erabilitako tresnak, ikasketen historiaren laburpena, ikaslearen garapen orokorra, hezkuntza testuinguruaren azterketa, hezkuntza beharren identifikazioa, hezkuntza erantzuna emateko orientabideak, familiari zuzendutako orientabideak eta jarraitzea eta berrikustea
- b) Ikaslearen datuak, ebaluazioa egitearen arrazoiak, norik eskatu duen ebaluazioa eta erabilitako tresnak
- c) Ikaslearen datuak, ebaluazioa egitearen arrazoiak, norik eskatu duen ebaluazioa, eta hezkuntza testuinguruaren azterketa sakona
- d) Soilik hezkuntza beharren identifikazioa eta hezkuntza erantzuna emateko orientabideak

16. Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen tipologia hiru taldeetan banatzen da W67 aplikazioan:

- a) A taldea (kategoria diagnostikoa), B taldea (hezkuntza premiak) eta C taldea (curriculum neurri arruntak)
- b) A taldea (hezkuntza premiak) B taldea (kategoria diagnostikoa), eta C taldea (curriculum neurri arruntak)
- c) A taldea (curriculum neurri arruntak), B taldea (hezkuntza premiak) eta C taldea (kategoria diagnostikoa)
- d) W67 aplikazioan ez dago tipologiarik

17. Ikasle etorri berriekin hasierako ebaluazioa egitea garrantzitsua da. Argitalpen honetan ikusi duzunaren arabera bi edo hiru eremu dira ebaluatu beharrekoak. Aukeratu erantzun zuzena:

- a) 1.Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (ahoz eta idatziz), 2. Matematikarako gaitasuna (zenbaki-serieak, oinarrizko eragiketa aritmetikoak, problema errazen ebazpena, geometria, neurriak, taula eta grafikoen interpretazioa).
- b) 1.Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (soilik ahoz), 2. Matematikarako gaitasuna. (zenbaki-serieak, oinarrizko eragiketa aritmetikoak, problema errazen ebazpena, geometria, neurriak, taula eta grafikoen interpretazioa) eta 3. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena
- c) 1.Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (ahoz eta idatziz), 2. Matematikarako gaitasuna (soilik zenbaki-serieak eta oinarrizko eragiketa aritmetikoak) eta 3. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena
- d) 1.Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (ahoz eta idatziz), 2. Matematikarako gaitasuna (zenbaki-serieak, oinarrizko eragiketa aritmetikoak, problema errazen ebazpena, geometria, neurriak, taula eta grafikoen interpretazioa e.a.) 3. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena

5.GAIA

18. Ereduak orientazioan zer dira?

- a) Programak sortzeko gidak
- b) Teknologiara hurbiltzeko gidak
- c) Ekintzarako pautak zorrotzak
- d) Ekintzaren gidak

19. *Counseling* ereduak...

- a) Orientazioan erabiltzen den eredurik onena da
- b) Orientazioan erabiltzen den ereduetakoa bat da
- c) Eredu telematikoarekin batera orientazioan erabiltzen den eredu bakarra da
- d) Hezkuntza orientazioan ez da erabiltzen

20. Egia ala gezurra da? Berariazko Ikasteko Zailtasunekin esku hartzeko interesgarriak diren webguneak hauek dira: a. Irakurgunea, *International Dyslexia Association*, Dislegi elkarteak, Dislebi elkarteak, Idazten ikasix wix, dyscalculia.org

- a) Egia
- b) Gezurra